

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2022 urtean aplikatu beharko diren zergak arautzen dituzten udal ordenantza fiskalen aldaketa (2.a eta 5.a). Hasierako onarpena. (Espediente: 2021/23/S893)

Laudioko Udalbatzak, 2021eko urriaren 4 egunean egin zuen osoko bilkuran, onartu egin zituen behin behineko izaeraz, 2022 urtean aplikatu beharko diren zergak arautzen dituzten udal ordenantza fiskalen aldaketa (2.a eta 5.a).

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, jakinarazten da zergak arautzen dituzten udal ordenantza fiskalen (2.a eta 5.a) aldaketa horiek 2022ko urtean aplikatu behar direla, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49-b) artikuluan xedatutakoaren arabera (41/1989 Foru Arauaren 50. artikuluekin lotuta), jendearen eskura jarrita daudela, Udaletxeko udal kudeaketa arloko Ekonomia era Zerga Kudeaketa Zerbitzuan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 30 eguneko epearen barruan, herritar interesatuek egoki irizten dituzten erreklamazioak aurkezteko; azpimarratu behar da erreklamaziorik ez bada aurkezten erabaki horren aurka erakustaldiaren epearen barruan, erabakia behin betiko onartutzat hartuko dela.

Laudio, 2021eko urriaren 5a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE